

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2023ko azaroak 10 · 1289 zenbakia

## INDARKERIARI AURRE EGITEKO BORROKA ARTISTIKOA

FLASKY FLASKY FLASKY

### 2mó 89€

lehen 99€

erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak



entzualatu optikan kanpoinaren ezagueriak

## MULTIÓPTICAS

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com

E  
I  
B  
A  
R  
R  
E  
N

# SAN ANDRES

## *bertso jaialdia*

azaroak 24 / ostirala  
Coliseo antzokia / 20:00  
- sarrerak egunean bertan salgai (8€) -



unai iturriaga



maddalen arzallus



oihana bartra



beñat gaztelumendi



jon maia



unai agirre

GAI-JARTZAILEA: jon mikel mujika


ANTOLATZAILEA:

eta kitto!

BABESLEAK:



# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Azaroaren 3an inauguratu zuten, Andretxean, Aranguneren 'EME. Estilo-arietak. Emakumeen Aurkako Indarkeria Sinbolikoak' izeneko erakusketa. Otsailaren 29ra arte egongo da zabalik eta denbora horretan hainbat bisita gidatu eskainiko ditu Josune Aranguren Zatikak.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Hilaren 17rako iragarrita zegoen Bakalaos Alkortako afaria bertan behera

Sukaldarien eta lehiaketaren agendan izandako arazoek Bakalaos Alkortako Txapeldunen Arteko Txapeldunaren Lehiaketaren bezperan, hilak 17, Unzaga Plaza Hotelean iragarrita zegoen afaria bertan behera lagatzera behartu gaituzte. Hala ere, Gabonak ondoren antzerako beste ekitaldi bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Aldi berean, gogoratu nahi dizuegu hilaren 18an, 10:30ean hasita, eskolen arteko pil-pil erako bakailao lehiaketa egingo dela Errebal Plazan eta, jarraian, Bakalaos Alkortako pintxoan Txapeldunen Arteko Txapelduna aukeratzekoa, miniaturazko gastronomia arloko txapeldunekin. Ahaztu barik hilaren 26an Untzaga Plazan egingo den garrantzi handiagoko bakailao lehiaketa klasikoa. Ekitaldian, gainera, omenaldi berezia egingo zaio Peio Garcia Amianori: gaur egun Zaporeak elkartearen alde egiten duen lanarengatik ezagunagoa bada ere, ez da edonolako kazetari gastronomo eta epaimahaikide bezala Peiok egin-dako lana, nonahi errespetua merezi izan duena.

Hori guztia ezinezkoa izango litzakete ditugun babesleen laguntzarik gabe: Urzante, Bakalaos Alkorta, Inoxibar, Mekahotel, Comercial Zabala, Ipardiz, Lumagorri, Ederto, IBFP Azitain, Solera Eibarresa, ...eta kitto!. Ziur ahaztuko dugula bateren bat. Eta, jakina, antolatzen laguntzen digun Eibarko Udala.

**Antolatzaileak**

**OKERRAK ZUZENTZEN.**- Aurreko asteko aldizkarian, 1288. zenbakian, Eibartarren Ahotan atalean (9. orrialdean), Rafael Osoro Alberdiren lekukotasuna jaso genuen, baina bere biografiako datu bat ez da zuzena: Osintxuko Ontzola (Oronsola) baserrian jaiotako zela esaten genuen, eta aita ere baserrian bertan jaiotako zela eta, ama aldiz, Elgoibarko zela. Bada, baserrian jaiotako ama zen, eta aita, berriz, Elgoibarko zela. Datu biografikoak Ego Ibarraren Eibartarren Ahotan proiektutik zuzenean hartu genuen eta bertan hala dago jasota, baina erredakzioan jasotako dei bati esker jakin dugu informazio hori ez zela zuzena. Bestalde, testuan diogun moduan, Rafael 1932. urteko urriaren 24an jaiotzen (eta ez 1929an, izen-abizenen azpian guk txarto ipini genuen moduan).

Egindako okerra barkatuko diguzuelakoan, horrelakorik ez errepikatzen ahaleginduko gara.

**Erredakzioa**

# Hortik esanak



Erasoezina den instituzio sakratu bilakatu da bilera gure munduan. Deia ez erantzuteko aitzakia sozialki onartua da horietako batean egotea. Eta telefonoa hartu eta berehala mozteko ere baleko arrazoa da bilera batera sartu behar izatea. Orduko bilera kopuruak ezartzen du lehen munduaren abiadura. Goi-bilera beste kategoria batean dagoen ekimena da. Inutilagorik ezin aurkitu. Ezta garestiagorik ere. Mamiari dagokionez hutsala da lotsagabe kuadrillaren juntadizoa. Azken asteotan Ekialde Hurbilean gertatzen ari denaren harira, edo horren aitzakiarekin, egin dira halako batzuk. Emaitza betikoa izan da, ordea. Aldaketa klimatikoa dela-eta burutu diren goi-bileren berbera.

**GAIZKA LASA, zutabegilea**

Instituzio medikoen sexualitate disidenteak kriminalizatzeke duten ahalmenaren hamaikagarren ereduak da tximino baztangarena. COVID-19rekin, OMEk alfabeto greziarra proposatu zuen aldaerak izendatzeko, eta ez jatorria, estigmatizatzailea eta arrazista baitzen; bada, tximino baztanga heldu zenean, OMEko idazkari nagusiak eskatu zien gizonei uzteko sexu harremanak edukitzeari beste gizonekin. Heteroek har ditzaketen gaixotasunetan, ordez, konponbidea sendagaiak dira, profilaxia...

**CHRISTO CASAS, antropologoa**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ORRI** → Landareek adarretan eukitzen dituztenak. Berdea denean esaten da. Jausitakoari, lurrean dagoenari, orbela esaten zaio. “Gure mendixetako zugatzak orri asko eukitzen dabe”.

**ORRITSU** → Orri asko dituena. “Artia orrritsua eta neguan orrixa galtzen ez daben arbolia”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 10</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>ZAPATUA 11</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 12</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ASTELEHENA 13</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>MARTITZENA 14</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>EGUAZTENA 15</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>EGUENA 16</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>BARIXAKUA 17</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>GAUEZ BETI, 2023an,</b> <b>Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Bonifacio Larrabe Iruستا.** 91 urte. 2023-11-02.
- **Isabel Erostarbe Urriaga.** 88 urte. 2023-11-02.
- **Esteban Azpiri Agirre.** 91 urte. 2023-11-03.
- **Patxi Urizar Beretxinaga.** 88 urte. 2023-11-04.
- **Luis Egaña Alberdi.** 96 urte. 2023-11-04.
- **Cirila Alca Gonzalez.** 70 urte. 2023-11-05.
- **Teresa Dominguez Martin.** 65 urte. 2023-11-06.
- **Javier Iturricastillo Garmendia.** 72 urte. 2023-11-07.
- **Laura Loiti Aretxabaleta.** 91 urte. 2023-11-07.

## Jaiotakoak

- **Antonela Silva Guimaraes.** 2023-10-25.



## Hasi da Azaroaren 25eko programazioa Eibarren

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatu duten programazioak azaroa osoa hartuko du eta, aurten ere, Udaleko Sail ezberdinek eta Emakumearen Mahaiko partaideek elikatu dute egitaraua. Bariakuan hasi zen programa, Josune Aranguren Zatikaren erakusketa Andretxean zabaltzearekin batera. Horren harira, 'EME. Estilariaketak. Emakumeen Aurkako Indarkeria Sinbolikoak' izenburua duen erakusketa ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte, otsailaren 29ra arte. Bisitetan artistak koadroen eta testuen inguruan azalpenak emango ditu eta ikusleek parte hartzeko aukera izango dute. Bisita irekiak izango dira, eta parte hartzeko Andretxera deitu (943 54 39 38/688 85 34 40) edo andretxea@eibar.eus helbidera idatzi beharko da nahitaez. Azaroaren 21ean eta urtarrilaren

22an euskaraz egingo dira bisitak, eta abenduaren 2an eta otsailaren 21ean, aldiz, gazteleraz.

Bestalde, astelehenean, 18:30ean, "Patriarcado, el organismo nocivo" (Pandora Box TV) dokumentala emango da Andretxean eta, jarraian, solasaldia egingo dute. Azaroaren 22an, berriz, Itziar Zigak "La feliz y violenta vida de Maribel Ziga" liburua aurkeztuko du (18:30ean Andretxean). Eta, egun berean, "Haurtzaroan eta nerabezaroan sexualitate aske eta osasuntsua izateko jarraibideak" hitzaldia emango dute, 18:00etan Portalean. Altzoa alargunen elkarrearen eskutik, azaroaren 25ean, 11:00etatik aurrera, matazak ehuntzen arituko dira Untzagan. Eta 13:00ean elkarretaratzea egingo da. Gainera, Juan San Martín Udal Liburutegiarekin batera, egunaren inguruko Irakurketa Gida bat prestatu dute.



## Eguaztenean zabalduko dute etxegabeentzat neguko dispositiboa

Datorren astean, azaroaren 15ean, zabalduko dute bizitegi-egoera larrian daudenentzako neguko dispositiboa, Karmen kalean, Karmeldarren elizaren lokaletan. Etxerik gabekoentzako 14 plaza eskaintzen dituzte bertan eta, egoera klimatologiko txarretan, Debabarreneko edozein udalerrik eta/edo dispositiboko teknikariek aktibatu ahal izango dituzte plazak. Arrats elkarteko hezitzaileak arduratzen dira zerbitzuaren kudeaketarekin eta aurten bi aldaketa egongo direla jakinarazi dute: "Plaza erreserbatzeko txartela zuzenean bertan eska daiteke, 10:00etatik 12:00etara. Orduetegi horretatik kanpora, udaltzainetara joan beharko da. Eta, orain arte hileko bost gau pasatzeko aukera eskaintzen bazitzaion pertsona bakoitzari, zoritzarrez, aurten bost gau egin ahal izango dituzte gehienez bi hileko tartean".

## Ermua-Donostia linearen zerbitzuak indartu dituzte

Ermua eta Donostia lotzen dituen Lurreldebuseko DB02 lineako errefortzuak (irailaren 21ean zerbitzuan sartu zirenak) zerbitzu erregular bilakatu dira. Informazio zehatza [www.lurreldebus.eus-en](http://www.lurreldebus.eus-en) eta 900 300 340 telefonoan.



## Oparitu Eibar txartela sustatzeko kanpaina berria ipini dute martxan

Eibar Merkataritza Gune Irekiak (ECCA), Eibarko Udalarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin elkarlanean, Oparitu Eibar txartelak sustatzeko kanpaina berri bat jarri du abian, deskontu garrantzitsuak eskainiz, oraingoan ostalaritza eta elikadura sektoreei zuzenduak. Bi sektoreetan erabiltzeko bi txartel-modalitate daude aukeran: 50 eurokoa eta 100 eurokoa. Txartelari esker, ostalaritzan %40ko beharpenarekin eta elikaduran %30eko deskontuarekin erosi daiteke. Aste honetan hasi dira txartelak saltzen, [www.erosieibarren.eus](http://www.erosieibarren.eus) webgunearen bidez. Internet bidez txartela erosi eta bi egunera, aukeratu den establezimenduan jaso daiteke. Azpimarratu dutenez, sustapen hori abenduaren 5ean iraugiko da. Data hori igarotakoan txartelak balio gabetuta geratuko dira, nahiz eta saldoa izan, eta saldo hori ezin izango da berreskuratu.



## Eibarko Memoria Taldeak zinema jardunaldiak antolatu ditu azarorako

Eibarko Memoria Taldeak zinema jardunaldiak antolatu ditu eta, horrela, datorren astean bi dokumental emango dituzte Portalean, 18:30ean: astelehenean “Karpeta urdinak”, Ander Iriarteren torturari buruzko lana emango dute, eta eguenean (azarok 16), Ritxi Lizartzaren “Apaiz kartzela” izenekoa. Egun bietan dokumentalak ikusi eta, jarraian, zuzendariekin solasaldia egingo da. Sarrera librea izango da. Antolatzaileek azaroaren 18an omenduko duten Jon Etxabe izan dute gogoan. Horregatik, bi emankizunek lotura zuzena daukate Etxaberen bizitzarekin. Astelehenean proiektatuko duten lana torturari buruzko dokumentala da eta, Memoria Taldeko Josu Ibargutxiren berbetan, “Jon oso torturatua izan

zen. 1960tik 2014raino gertatutako torturei buruz Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketan oinarritzen da. 4.133 torturatu egon zirela argitu zuen ikerketak eta euren testigantzak agertzen ziren, tartean Etxaberenak”. Eta Ritxi Lizartzak zuzenduriko lanaren ardatza Zamorako kartzela, munduko apaiz-kartzela bakarra izandakoa da. Etxabek zazpi urte egin zituen bertan.

### Jon Etxaberi agurra Armeria Eskolan

Bestalde, Jon Etxaberi azken agurra emateko ekitaldia Errebalen egitekoa bazen ere, azken orduko aldaketa bat egin behar izan dute eta, horrela, Armeria Eskolan egingo diote omenaldia Etxaberi, azaroaren 18an (zapatuan).

• tartak  
• enkarguak  
• etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEBORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

*Enkarguak etxera*



## Edukiontzi urdin eta horiak aldatuko dituzte

Debarreneneko Mankomunitateak hondakinak botatzea erraztuko duten edukiontzi berriak jarriko ditu papera eta kartoiak biltzeko, baita ontzi arinak batzeko ere. Hala adierazi du Igor Aldalur Ingurumen teknikariak: “Orain arte erabili diren iglu itxurako edukiontzi urdinak eta horiak kendu, eta berriak ipiniko dira eskualdeko herri guztietan. Guztira 496 edukiontzi aldatuko ditugu. Asmoa gaikako bilketa erraztea, herritarrentzat

erosoagoa izatea da. Kontenedore berrien ahoak albo batean daude eta, gainera, handiagoak dira. Horrekin batera, zerbitzua bera hobetuko da”. Gaikako bilketaren portzentaiak gora egitea da asmoa. Mutrikun astelehenean hasi dira edukiontzi berriak jartzten, eta Eibarren azaroaren 14tik 20ra bitartean aldatuko dituzte 139 edukiontzi guztira. Zerbitzu berria abenduaren 1ean ipiniko da martxan”.

## Hasi dira Udaleko ordezkariak auzorik auzo egiten dituzten bilerak

Atzo bertan hasi ziren Udalak urtero antolatzen dituen auzoko bilerak. Betiko martxan, bilera hauetan udal ordezkariak, teknikariak eta udaltzainak egoten dira, herritarren kezak entzun eta arazoei konponbidea emateko, eta atzo Eibarko ekialdeko bizilagunen txanda izan zen. Datorren astean beste hiru bilera egingo dira. Martitzenean (azaroak 14) erdialde-behealdeko bizilagunekin elkartuko dira, Coliseo antzokian. Eguaztenean, Legarrekoekin izango da bilera, udaletxeko plano aretoan. Eta eguenean (azaroak 16) Amañako auzokideekin bilduko dira, auzoko parrokian. Azaroaren 21ean, 22an eta 23an izango dira beste bilerak, Untzagako jubiletxean, Ipuruakoan eta Urkiko parrokian, hurrenez hurren, 19:00etan beti.



## 1980. urtean jaiotakoen kintada-jai arrakastatsua

Urte horretan Eibarren haur asko jaio zirela argi dago, aurreko asteko topaketan ehundik gora lagun batu ziren-eta. Egun biribila pasatu zuten.



## Euskal Herriko mendien aplikazioa berritu dute

Mendiak APP, Euskal Herriko mendien aplikazioa berritu du CodeSyntax-ek: “Arinagoa, osatuagoa, erabilgarriagoa, politagoa da orain”. Une honetan 3.000 mendiren informazioa dago 2016ko udazkenean sortu zuten aplikazioan. Informazio gehiago honako webgunean: <https://mendiak.eus/>.





## ELA-ko ordezkariak Eibarren bildu dira, Greba Feminista Orokorra lantzeko

Azaroaren 30erako deituta dagoen Greba Feminista Orokorra dela-eta, ELA sindikatuko ordezkariak Eibarko Armeria Eskolan elkartu ziren martitzenean, asanblada egiteko. Ondoren, eguerdian, Untzagaraino manifestazioa egin zuten. Eibarren bezala, beste herri batzuetan ere elkartu dira sindi-

katuko ordezkariak, eskualdeka egin diren asanbladetan. Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiaren berbetan, “ELAk 3.000 delegatu batu ditu bi egunotan Hego Euskal Herrian egindako asanbladetan. Delegatuak aktibatatu ditugu, grebaren aldarriak lantokiz lantoki lantzeko”.



## Palestinako sarraskia gelditzeko eskaera

Gernika-Palestina herri-deialdiarekin bat eginez, Eibarren ere Gazako sarraskia gelditzeko eskatu zuten herritarrek martitzenean, Untzagan. Eibarren bezala, Euskal Herriko ehundik gora herritan egin ziren konzentrazioak.

## Bi tailer egingo dira azaroan Energia Argitu programaren eskutik

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, Eibarko Udalarekin elkarlanean, Energia Argitu programaren baitan bi tailer antolatu ditu hilabete honetarako. Azaroaren 15ean, 18:30ean, Portalean (Ikastarogelan) etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko aukeren inguruan informatzeko tailerra egingo da. Eta azaroaren 28rako, norberaren etxebizitzarako berokuntza sistemarik egokiena zein den ezagutzeko tailerra antolatu dute (toki eta ordu berean). Tailerretan parte hartzeko aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da, “saioak aurrera egiteko ezinbestekoa baita aldez aurretik ikasleen kopurua ezagutzea”. Energia berriztagarrien tailerrean parte hartzeko izena emateko epea azaroaren 13ra arte dago zabalik, eta berokuntza sistemen tailerrean parte hartzeko epea azaroaren 23ra artekoa da. Izena emateko argitu@gipuzkoa.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 605 757 687 telefono zenbakira deitu (astelehenetik barixakura, 09:00etatik 18:00etara). Informazio zehatza Interneten dago eskuragarri, [www.energia.eus](http://www.energia.eus) webgunean.





Eibarren Gaztaiñerre ospatzeko ohitura handia egon da betidanik, nahiz eta urteekin ospatzeko modua aldatzen joan den.

## Marraskiloak, berakatz zopak eta gaztaina erreak jateko sasoirik onena

Herriko euskaltzale guztiak gonbidatu nahi dituzte urteroko hitzordu honetara AEK Euskaltegikoek, eta Gaztaiñerre eurekin batera ospatzera animatu nahi dute jende guztia: “Errebalen elkartu eta, jarraian, handik abiatuta, Urkizun zehar kalejiran ibiliko gara, herriko trikitilariak lagunduta. Euskal kantik abestuz, giro onean. Azkenik, 20:00etan Zai Zoi tabernan meriendatxo egingo dugu, eta ez dira gaztaina erreak faltako!”.

Orokorrean, jai bakoitzak ospatzeko bere eguna izaten du egutegian eta urtero-urtero errepikatu egiten da. Baina ez da hala gertatzen Gaztaiñerre egunarekin. Izan ere, urtetik urtera ospatzeko eguna

aldatzen joaten da eta, beharbada horregatik, batek baino gehiagok urtero izaten ditu Gaztaiñerre ospatzeko egunaren inguruko zalantzak. Zorionez, argitzeko modua esku-eskura daukagu, Juan San Martinek idatziz jasota laga zigun eta, “Antzinako Eibar” etnografia gaiei buruzko bere liburuan: “Egun hau, Ermua, Eibar eta Plaentzian Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da. Urtetxoak dira Gaztaiñerre egun jatorrari buruzko zalantzak eta eztabaidak ezagutu nituela. Batzuen ustez “Domunun Santu” egunetik bigarren astelehena behar zuen izan eta beste batzuen ustez Arimen egunetik urrengo astelehena, eta baita ere

Azken urteotan egin ohi duten bezala, aurten ere Gaztaiñerre eguneko ospakizuna antolatuta dute AEK euskaltegikoek. Astelehenean, azaroaren 13an izango da eta aurtengo kalejira eta ondra-janak Urkizun egingo dituzte. Horretarako, 19:00etan elkartuko dira, Errebalen.

baziren Arimen egunetik hirugarren astelehena zela uste zutenek ere. Jan-edan zaleentzat hain da egun ona, baziren astelehen bietan behar zela esaten zutenarik ere, eta Guruzeta korrespontsalarentzat, duda hoiek kontuan harturik, azaroko astelehen guzietan ospatu behar zen. Iritziak iritzi, Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da”.

### Lagun arteko afari-meriendak, marraskilo eta guzti

Tradizioz, Eibarren lagunarteko afari-merienda eginda ospatzen zen Gaztaiñerre. Egun horretan, plater nagusia marraskiloak izaten ziren, eta sarritan berakatz-zopa ere egiten zen afarirako. Hauekin batera, jakina, gaztaina erreak jaten zituzten lehengo eibartarrek, bai ala bai. Sasoi batean gure artean oso hedatuta egon zen hildakoen aldeko ondra-jana da Gaztaiñerre ospakizunaren jatorria, hortik Domu Santu edo Santu Guztien egunarekin duen lotura estua.

# LEHIAKETA!



• **2. ASTEKO SARIA:** COLISEORAKO EDO MUSEORAKO 2 SARRERA.

• **HILABETEKO SARIA\***: 100€-KO EROSKETA-BONOA EIBARKO DENDETAN ERABILTZEKO.  
\*Azaroak 3, 10, 17 eta 24ko lehiaketaren parte hartu eta gehien astutu dituzanentzat (berliriketa badago, zozketa bidez egingo da)

**SARTU ONDORENGO ESTEKAN ETA ERANTZUN 3 GALDERAK:**





<https://labur.eus/astindu2>




# Untzagan LIBURU eta Disko

# Azaroaren 10etik 19ra

# AZOKA Eibarren

**ORDUTEGIA**  
 astean zehar 11:30-13:30 / 17:30-20:30  
 asteburuan 12:00-14:00 / 17:30-20:30

**AUKERAKO LIBURUAK**  
**EUSKAL DISKAGINTZA**  
 Euskadiko Liburu Ganbararen eskutik



# 2023 Tailerrak

EDUKIERA MUGATUA  
 Ezinbestekoa da alde z aurretik izena ematea:  
[argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus)  
 605 75 76 87 (09:00-15:00 astegunetan)



**AZAROAK 15**  
**ENERGIA BERRIZTAGARRIAK**  
 zure etxean... posible da!  
 Izena emateko:  
 Azaroak 13ra arte



**AZAROAK 28**  
 Jakin ezazu zein den BEROKUNTZA SISTEMARIK EGOKIENA  
 zure etxebizitzarako  
 Izena emateko:  
 Azaroak 23ra arte






FELIX MORQUECHO

## Ez da normala

Notifikazioa. "Josu-k bideo bat bidali dizu". Ea ba zer topatu duen honek. Ah, ikusita nuen hau, saskibaloitza. Zuek ez al duzue ikusi? Hara ba, kontatuko dizuet, oso simplea da. Partidu baten erdian pertsona edo halakoren bat epaileari irainak botatzen azaltzen da. Arbitroa neska da, eta iraintzailearen ahotik ateratzen diren hitz guztiak "puta"-tik hasten dira. Ezin dut asmatu zertara joaten den tipo bat polideportibo batera saskibaloitza partidu batean horrelako astakeriak botatzera. Jokalariak ere emakumeak ziren eta ezin dut ulertu zertara gerturatzen den parte-hartzaileengatik enpatia zero erakusten duena. Barruan dituen deabru guztiak askatzera joan al da?

Horrelako jarrerak normaltasunez jasan ditugu kirolak ikuskizun kutsua hartu duenetik. Sarrera ordaindu (ala ez) eta barra libre ahotik pasatzen zaigun guztia botatzeko. Baina zorionez gauzak aldatzen doaz. Lehen normaltzat jotzen genuen norbait medikuaren kontsultan erretzen ikustea, eta orain ez zaigu burutik pasatzen. Ba gauza hauekin berdin gertatu arte jarraitu behar dugu. Ez da normala hamar urteko ume koxkorak arbitro bati denetarik esaten entzutea. Ez da normala berrogei urteko heldu bat arbitro bati denetarik esaten entzutea. Ez da normala gazte batek bere adineko jokalaria bat iraintzea. Ez zait normala iruditzen, eta berdin zait jokalaria edo epaileak ondo egin duen bere lana egun horretan edo ez. Jarrera horiek barru-barruan sartuta ditugu, eta ondokoari diogun begirune faltatik hasten dira.

Azken bi urtetan infantil mailako saskibaloia ikustea tokatu zait. Egunen batean entzun izan dut arbitroa ez dela fin ibili, baina niri burura etortzen zaidan bakarra zera da, tipo horrek bere denborako bi ordu eman dituela nire semeak eta bere taldekideak jokatu ahal izateko. Agian, arbitro, jokalaria edo delako horren atzean pertsona bat dagoela pentsatzen dugunean bide onean ibiliko gara.

**"Arbitroa ez bada fin ibili ere, bere denborako bi ordu eman ditu nire semeak eta bere taldekideak jokatu ahal izateko"**

# Senide eta On Natura

## ON EKIN Sarien aurtengo irabazleak

Urriaren 26an burutu zen Ekingune elkarteak antolatzen dituen On Ekin sarien hamaikagarren edizioa, Errebal Plazan. Ohiko photocallaren ondoren, Nagore García Sanz aholkulariak hitzaldia eman zuen eta, jarraian, lehiaketara aurkeztutako 16 enpresa-ideia eta proiektuak aurkeztu zituzten, ekitaldira bertaratu ziren 60tik gora laguneren artean. Aurtengo proiektu irabazleak SENIDE eta ON NATURA izan dira eta proposamen horiek landu dituzten protagonistekin egoteko aukera izan dugu.

**ekingune**

**Ekintzaileen arteko lankidetzak eta sustapenerako elkarrekin da Ekingune. Urtero 'On Ekin' enpresa-ideien eta proiektuen lehiaketa antolatzen du. Helburua pertsonen edo enpresen sormena piztu eta sustatzea, eta ekimenei laguntzea da, itxuraz merkatuan funtziona dezaketen negozio-kontzeptuak biltzen dituzten proiektuak eta ideiak aurketuz.**

**E**paimahaikideek hala erabakita, On Ekin 2023 Saria (2.000 euro) SENIDE proiektuarentzat izan zen, dementzia eta alzheimerria dutenei zuzendutako txatbot zerbitzua-rengatik. Proiektuaren sortzaileak UNI Eibar-Ermuko bost ikasle dira, informatikako ikasleak. Zehazki Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena izeneko goi-mailako zikloan dihardute.

Ekitaldian parte hartu zuten botazioaren bidez erabaki zen Herriarren Saria, berriz, On Natura izeneko ekimenari eman zioten. Diego Martinez eibartarrak aurkeztutako proiektua Debarbarrean izaera jasangarria duen turismo-rako proposamena da, ingurumenaren sentsibilizazioa, jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua sustatuz, eta pertsonen

osasuna eta ongizatea hobetzen lagunduz. Herritarrek ematen duten saria 1.000 eurokoa da, 5 euro gehituta ekitaldian parte hartu zuten izen-emate bakoitzeko.

### Datorren astean ekitaldi berria Errebal plazan

Elkarteko bazkideentzako "Pintxo-pote +1" ekitaldia antolatu du Ekinguneko azaroaren 16rako (eguna), 19:00etan. Urteko azken ekitaldi irekia izango da eta oraingoan Errebal Plazan izango da. "Prompt-ak zer dira eta nola erabili ChatGPT-rekin komunikatzeko?" hitzaldia egongo da eta IKB Arkitektura Teknikoa elkartekide berria ezagutzeko aukera izango dute. Elkartetik bazkideak animatu nahi dituzte pintxo-potera joateko, eta networkinga interesatu ahal zaion norbait eurekin eramateko.



Gerson Calo, Gorka Garcia, Alberto Cáceres, Haritz Arruabarrena eta Jon Telleria. ANAIZPURUA

## SENIDE, alzheimerra dutenei zuzendutako proiektua

**I**lusio handiz jaso dute 2023ko On Ekin saria. *Senide* proiektua aurkeztu duten bost gazteek. UNI Eibar-Ermuko ikasleak dira. Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena goi-mailako zikloan ikasten dihardute. Jon Telleria eibartarra da horietako bat eta, berarekin batera, inguruko beste herri batzuetako ikasleak daude: Haritz Arruabarrena (Mutriku), Alberto Cáceres (Antzuola), Gerson Calo (Deba) eta Gorka Garcia (Soraluze). "Ez genuen espero sari nagusia irabaztea. Proiektu asko eta oso kalitate onekoak aurkeztu dira eta guretzako poz handia izan da", diote.

Bost ikasleek ikasketa proiektu gisa sortu dute *Senide* ideia, eta orain ikertzeko eta proiektua gauzatzeko asmoa dute. Adimen artifizialeko aplikazio baten erabileran zentratutako proposamena da, gaitasun kognitiboak murriztuta dituztenei laguntzeko, telefono-deiei erantzunez, euren senide edo zaintzaileek ezin dutenean egin. "Merkatu-ikerketak bat egin genuen eta konturatu ginen bazegoela antzerako gauza bat, baina horretan ez zela intelgentzia artifiziala erabiltzen. Gaur egun intelgentzia artifiziala oso bogan dago eta teknologia oso au-

rreratuta dago. Kode irekiko teknologia eskura ditugu gainera. Beraz, berrikuntza horiek oso sinpleak diren aplikazioetan sartzea pentsatu genuen", azaldu digute.

"Dementia eta alzheimerra daukaten pertsonek, batez ere hasierako fasean, askotan deitzen diete telefonoz euren ingurukoei eta etxekoei. Eta erantzuten ez badiete estutu eta urduri jartzen dira. Aplikazio honek deia txatbot batera desbideratzen du eta, intelgentzia artifizialaren bidez, txatbot horrek bere senidearen ahotsarekin erantzuten dio. Elkarrizketaxo bat eduki dezakete eta hori grabatu egiten da, gero benetako senideak irakur dezan. Txatbotak detektatzen badu pertsona hori arriskuan dagoela (erori egin dela, galduta dagoela edo edozer gauza gertatu zaiola), kontaktuei deitzen die eta, beharrezkoa ikusten badu, larrialdietara deitzen du", esan digute.

On Ekin sariak euren ideia aurrera eramateko bultzada handia eman diela diote irabazleek. "Lehen ez geunden hain seguru, baina asko gustatu dela ikusi dugu eta horrek asko animatu gaitu aurrera egiten jarraitzeko".



Diego Martinez eibartarrak ON NATURA proiektuarekin irabazi du publikoaren saria.

## ON NATURA, Debabarrena eskualdeko turismoa ardatz

**O**n Ekin Sarien ekitaldian herritarren saria On Natura proiektuarentzat izan zen. Diego Martinez eibartarrak aurkeztu zuen proiektua, eta Debabarrena eskualdean izaera iraunkorreko turismo-programa bat garatzeko apustua du ardatz.

Proposamena Debegesak bultzatzen duen Heldu! ekintzailetzari laguntzeko programan egin da eta, ingurumen-sentsibilizazioa, jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua sustatzeaz gain, pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzea du helburu. "Zaletasunak eta grinak eraman naute honaino. 20 urte baino gehiago daramatzat mendizaletasuna eta alpinismoa praktikatzan. 2017an behe- eta goi-mendiko ibilbideetako mendiko gidari titulua atera nuen. Naturarekin eta mendiarekin kontaktua izatea gustatzen zait. Eta nire pasioa lanarekin lotzea nahiko nuke", azaldu digu Diegok.

On Naturan, batez ere, natura eta mendi-ibiliak eskaini nahi dituzte, naturan bizipenak sortuz, ibilbideetatik hasi eta egun bateko edo biko bizipene-

taraino. "Inguru naturala ezagutarazi nahi dugu, eta naturan ibiltzeko esperientzia aberastuko duten beste jarduera batzuekin konbinatu, hala nola, mendiko aterpeetan gaua igaro edo landa-ingurune bititak egin eta bertan egiten diren jarduerak ezagutu (gazta, ogia edo sagardoa nola egiten duten, esate baterako). Halaber, mendizaletasunari buruzko oinarritzko kontzeptuak irakatsi nahi ditugu. Eta abentura-parkeetara bititak antolatzea ere aurreikusten dugu", esan digu Diegok.

Azken batean, On Naturaren helburua jardueramota gidatu, seguru edo kontzientea egitea da. "Hasiara batean hori Debabarrena eskualdean eskaini nahi dugu. Aukera horiek ematen dituen ingurune zoragarria daukagu. Gainera, eskualdean turismo-eskaria handitzen ari da, eta turistek bisitatzen duten tokiarekin konektatzeko aukera ematen duten esperientziak bilatzen dituzte. Debabarrenean ondare natural, historiko eta kultural handia dugu esperientzia horiek guztiak eskaintzeko", esan digu Diegok.

# Hemen oilarrek rapeatu egiten dute

Zapatuan, hilaren 11n, oilar borrokak izango ditugu Errebalean. Euskal Herriko eta beste zenbait tokitako raperoek jardungo dute bertan, nor baino nor, Haky del Rey lehiaketa eskuratzeko asmoz. 16:00etan iragazkia pasa ondoren, 16 rap-abelari onenak publikoaren aurrean arituko dira 18:00etatik aurrera, eritmoaren, hitzen eta errimen bitartez raparen errege edo erregina bihurtzeko.



**K**aletik elkarte eibartarrak orain dela hiru urte jarri zuen martxan Haky del Rey izeneko lehiaketa eta, urtetik urtera, gero eta publiko gehiago erakarri du. “Gero eta gazte gehiago ikusten ditugu harmailetan, baita umeak ere”, diote Kaletik elkartekoek. “Gainera, gaiaren inguruan asko dakite, ez pentsa!”.


Ez da gutxi, elkarteko kideak umeak zirenean kultura mota horren egoera zein zen kontuan hartuta. Orain, urteetako lanaren ondoren, elkarte sendoa osatu dute eta hainbat ekintza egiten dituzte Eibarren zein beste herri batzuetan. “Eskoletan egoten gara, tailerrak eskaintzen ditugu, ikuskizunak, lehiaketak...”, azaldu digute. “Eibarren ez dago gauza askorik kultura horren inguruan eta sustatu egin nahi dugu”.

Kaletik deitzen da elkarte, eurak ere kalean hasi zirelako eta kaleko kultura deritzona bultzatzen saiatzen direlako. “Bai dantzaren arlotik (breakdance), bai musikatik, irudiak sortzetik, eta abar”, esan digutenez.

## Haky del Rey

Oilar-borroken hirugarren edizioa da aurtengoa, baina bigarren aldia da izen hau hartzen duena. Eta zergatik Haky del Rey? “Jatorri japoniarra du eta jokoa ematen duela uste dugu. Gainera, guk MC (Master of Ceremony) disziplinaren errege edo erregina bat korroatu nahi dugu”, azaldu digute Kaletik-ekoek. “Raperoak esaten zaie orokorrean, baina berez MC-ak dira”, zehazten dute.





Kaletik elkarte eibartarrak antolatu du Haky del Rey lehiaketa.

**30 MC inguruk eman dute izena, baina 18:00etako saioan 16 onenak bakarrik lehiatuko dira**

Biharkoan 30 MC inguru ibiliko dira lehian, baina 18:00etan hasiko den ikuskizunean 16 onenak bakarrik lehiatuko dira. “Gasteizetik, Bilbotik, Donostiatik, Zaragozatik, Arrasatetik... etorriko dira”, dioskue.

Parte-hartzaileen artean eibartarrak egongo den ez dakite, baina iazkoari begiratzuz gero, baietz espero daiteke. “Harrituta geratu ginen, horrelakoetan zebilenik ere ez genekien jendeak izena eman baitzuen. Arraroa da, herrian ez garelako asko arlo horretan gabiltzanak, baina ezusteko polita izan zen”, esan digute.

18:00etan hasiko diren kanporaketetan oilar-borrokak egingo dira. Horrela, bi MC nor baino nor arituko dira zenbait modalitatetan (barrak, hitz baten inguruko errimak...) eta kanporaketak gainditu beharko dituzte sariaren 800 euroak eta errege edo erreginaren garaikurra irabazteko.

Lengoiari dagokionez, antolatzaileek aitortzen dute batzuetan MC-ek lengoaia iraingarria erabiltzen dutela. “Batzuetan kontrolatu daiteke eta beste batzuetan ez. Gainera, adierazpen askatasuna sartzen da jokoan eta ezin dugu zentsura ezarri”, antolatzaileek diotenez.

Saioak baloratzeko orduan, ostera, epaileek (Freestyle Master Series ‘FMS’ zirkuitukoak dira) zaintzen dute erabilitako lengoaia iraingarria ez izatea. “Gainera, adin guztietarako ekintza izan dadila nahi dugu”, diote Kaletik-ekoek. “Beraz, ez dugu zentsuratu nahi, baina muga batzuk jartzea bai”.



# Greba bat baino askoz ere gehiago

Informazio  
gehiago:



Azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo da Euskal Herrian. Zaintza sistema publiko-komunitario feministaren aldeko aldarriak egiten dute ekimenaren sustatzaileek, pandemia sasoian aktibatu zen prozesuari jarraipena emanez eta indartuz. Eibarren, gainera, San Andres eguna ospatu ohi da 30ean eta, data berezia izanik, zenbait gorabehera sortu dira grebaren inguruan. Beraz, Eibarko Greba Batzordeko kideekin elkartu gara ekimenaren nondik norakoak azaltzeko.

**E**z da ohiko greba bat izango. “Greba orokor feminista izango da”, esan digute Eibarko Greba Batzordekoek. “Horrek esan nahi duena da, aldarrikapena zaintza eredu aldatzeko den arren, gizarteko sektore guztiak daudela deituta grebara, bai gizonak bai emakumeak”, zehazten dute. “Hala ere, ulertzen dugu gizonak eta emakumeek posizio ezberdinetatik hartu beharko dutela parte greba honetan. Oraindik ere, emakumeok dugulako zaintzaren zama handiena”.

Aurreko greba feministetan, kontsumo eta enplegu greba gainditu, eta mahai gainean jarri zuten zaintza greba ere. “Eta oraingoan ere, ehun produktibotzat hartzen dena gelditzea ez ezik, grebak zaintza esparru osoa problematizatzea eta berrantolatzea ere izango du helburu”, diote batzordekoek.

Argi dute, bestalde, gauza garrantzitsu bat: “Greba honen protagonista haundienetako batzuk dire-

**GREBA FEMINISTA OROKORRA**  
AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE

 Zaintza eskubide kolektiboaren alde.  
A favor de un derecho colectivo al cuidado.  
En faveur du droit collectif au soin et à l'accompagnement

nak, zaintzaileak, izango dira hain zuzen ere greba egin ezin izango dutenak. Beraz, eurekin bat egin nahiko genuke”.

### Epe luzeko erronka

Batzordekoen berbetan, “grebaren helburua grebaz haratago doa”. Hau hasiera besterik ez da, gaia azalera-tzea. “Bizi dugun egoera eskaparatean jarri nahi dugu, denoi dagokigulako eta denon artean irauli behar dugulako”, zehazten dute. Aipatu bezala, emakumeek hartzen dute bere gain zaintzaren zama handiena eta, beraz, “guk egin behar dugu aldarrikapen hori eta gu izan behar gara protagonista”, euren ustez, “baina gizarte osoaren arazoa denez, guztioi dagokigu hausnartu eta bide bat egin aldaketak lortzeko”.

Greba Batzordekoek dioten bezala, “honek ez du atzera bueltarik”, eta hau guztia epe luzeko erronka bat da. Horregatik, euren helburua ez da azaroaren 30eko greba aurrera ateratzea bakarrik, baizik eta epe luzeko borroka bati bide ematea. “Greba inflexio puntua izan dadila nahi dugu”, euren berbetan.

Lehen mugarrria greba izango bada ere, horren ondoren Euskal Herri osoan egingo diren herri-akordioei emango zaie bidea. “Herri-akordioen bitartez zaintza sistema eraldatu nahi dugu. Gaur egungo zaintza sistema baldintza prekarizatu eta ikusezinetan gertatzen da, eta emakumeak dira ardatz nagusia”, azaldu digute.

### Festa ala zaintza?

Eibarko Greba Batzordeko kideak irailaren amaieran hasi ziren biltzen.



Eibarko Greba Batzordea eguenero biltzen da Andretxean. SILBIA HERNANDEZ

## >>> "Aldarrikapena zaintza eredu aldatzea den arren, gizarteko sektore guztiak daude deituta grebara"

Hasieran bilera ez mistoak egin zizuten, eta urriaren erdialdeaz geroztik bilera mistoekin hasi ziren. “Bilera irekiak izan dira hasieratik eta 20 lagun inguru elkartzen gara normalean”, aipatu digute. Eguenero (18:00etan) elkartzen dira Andretxean eta greba eguna iritsi arte berdin jarraituko dute. “Beraz, parte hartu nahi duenak irekita aurkituko ditu ateak”, diote.

Hilabete hauetan grebaren inguruan hausnartzen eta ekintzak prestatzen ibili dira, baina oraindik



Eibarko Greba Batzordearen lehen bilera ez mistoak izan ziren, baina gero gizonek ere hartu ahal izan dute parte. SILBIA HERNANDEZ

gauza batzuk zehazteko dituzte. Izan ere, greba eguna azaroaren 30ean izanik, San Andres egunean, ez dakite herrian ekintzarik egingo den ala ez. “Eibarren asko konplikatzen da greba egunak jaieguna-rekin bat egiten duelako. Udaleko ordezkari batzuekin bilera izan ondoren, bazirudien bazegoela jaia egunez aldatzeko aukera. Hau da, jaien inguruko egitaraua asteburuan egitea eta 30ean greba egitea. Azkenean, ez dakigu ondo zergatik, Udaletik ez dute bide hori eraman eta, ikusi duzuen moduan, urriaren 30eko Udal Batzarrean alkateari zuzenean ‘azaroaren 30ean: festa ala zaintza?’ galdetu zitzaion, eta bere erantzuna zera izan zen: hurrengo galdera. Orduan, galdera bera egiten dugu orain. Eskertuko genuke norabide aldaketa bat balego. Ez dugu erraza ikusten, baina hemen gaude berriz ere hitz egiteko eta gauzak beste modu batean egiteko”, diote Eibarko Greba Batzordekoek.

**>>> “Honek ez du atzera bueltarik, eta hau guztia epe luzeko erronka bat da”**

**>>> “Euskal Herri osoan egingo da zaintza greba, eta Eibarren demaseko potentziala dugu”**

Jakitun dira eibartarrentzat garrantzitsua dela San Andres eguna ospatzea. Horregatik, ospatuko dutela diote, “baina beste data batean”. Era berean, greba egunaren garrantzia azpimarratzen dute. “Ez da ohiko eguna izango, Euskal Herri osoan egingo da zaintza greba, eta Eibarren demaseko potentziala dugu, feminista asko dago, eta gizarte bezala dugun erronka da. Eibartar guztiok dugu egiteko zerbait eta zentzu horretan eragileen papera azpimarratu nahiko genuke. Festa horretan parte hartzen duten eragileek gurekin bat egitea gustatuko litzaiguke eta kontuan izatea azaroaren 30a egun garrantzitsua dela”.

Martitzenean egon ginen Greba Batzordekoekin eta eguaztenean Jon Iraola Eibarko alkateak Radio Eibarren egin zuen berba greba egunari buruz. Bertan aipatu zuen oraindik ez zekitela San Andres egunean ekintzak egingo ziren ala ez, eta Greba Batzordearen eskaerak aztertuko zituztela.



Santiago Entrena 2000. urte inguruan hasi zen bere bilduma osatzen. Euskadin Egiptori buruzko bi bilduma partikular baino ez daude, berea eta Jose Mari Ortuondorena.

## Santiago Entrenaren bildumako piezak Bilboko "Ni neu Isis" erakusketan

Urriko azken egunaz geroztik, "Ni neu, Isis, Señora de todas las tierras" erakusketa ikus daiteke. Bilboko Berreginen Museoan. Maiatzaren 19ra bitartean zabalik egongo den erakusketa horretan Egiptoko piezen erreproduzioak, Euskal Museoaren bildumako jatorrizko obrak eta bilduma partikularretako objektuak ere ipini dituzte ikusgai, tartean Santiago Entrena eibartarrak erakusketarako laga duen bere bildumakoak.

Aldi baterako erakusketaren haria Isis jainkosa egiptoarrak greko-erromatarren zibilizazioa ezagutu eta gero izan zuen eraldaketa da, eta hari horrek Egipto eta antzinate greko-erromatarra lotzen ditu. Erakusketaren antolatzaileen berbetan, "Isis antzinateko Egiptoko jainkosa konplexu eta gurtuena-takoa izan zen eta, Greziako zibilizazioa ezagutu zuenean, guztiz eraldatu eta mundu osoko jainkosa



bihurtu zen. Kultura greko-latin-darrean eragin handia izan zuen eta, geroagoko kristautasunean, Mariaren errepresentazioaren iturri ikonografikoa ere izan zen".

Erakusketa antolatu dutenen berbetan, "lau bilduma askotariko alderdiak dituen ikuspegi batean bildu nahi izan dugu. Alde batetik, Euskal Museoaren Palacio Olabarrria bilduma, Egiptoko jatorrizko objektuak dituena. Beste alde batetik, Santiago Entrena eta Jose Maria Ortuondoren bildumak, Egiptoko antzinako gauzen bi euskal bilduma pribatu bakarrak. Eta, hiru bilduma horiek osatzeko, Bilboko Berreginen Museoaren molde-lanak, eta erakusketa honetarako Berlingo Gipsformerei-tik eta Parisko Atelier de Moulages-etik eskuratu diren hiru elementu gehiago daude". Erakusketa 40 piezak osatzen dute, horietatik 13 Santiago Entrena eta Jose Maria Ortuondoren bilduma partikularretakoak. Piezarik aipagarriena, bestalde, Harwaren Ushebtia da. Jatorrizko obra hori serpentina harriarekin eginda dago, Luxorretik ekarri zuten, eta Euskal Museoaren Egiptoko bilduma bereziaren parte da.

### Egiptoko grabatu, litografiak, argazkiak eta pieza txikiak

Santiago Entrenak laga duen bilduman, bestalde, dokumentazio grafikoa dago batez ere. Hala nola, Egiptora egin zituzten lehen espedizio modernoetako grabatuak edo litografiak. Eibartar honi ikaragarri gustatzen zaizkio antzinako Egiptoko historia eta arkeologia eta, zaletasun horrek bultzatuta, urteak daramatza VIII - XIX. mendeetako grabatu, liburu ilustratu eta argazkiak biltzen, baita Egipto faraoonikoko arkeologia-pieza txikiak ere.



## Berbalagunak Bergaran izan dira asteburuan

Aurreko zapatuan Berbetan programako berbalagunak Bergara bisitatzeko izan ziren. “Bergara monumentalak” izeneko bisita egin zuten hirigune historikoan murgilduz. Herriko monumenturik aipagarrienak bisitatu zituzten eta udalerraren historia aberatsa ezagutu zuten gidaren laguntzarekin. “Aire zabaleko museoarekin” egin zuten topo berbalagunek, estilo arkitektoniko ugariko eraikin berezi eta bikainak biltzen baititu Bergarak. Bisita amaitu ondoren, bertan bazkaldu zuten; aukera polita talde ezberdinetako berbalagunak elkar ezagutu eta harreman-sarea zabaltzeko.

Bestalde, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Udala Euskaltegia izan da aste honetan bertako ikasleei Ber-

betan programa azaltzen. Euskaltegia ikasitakoa praktikan jartzeko aukera interesgarria da mintzapraktikako programa hori, inguru hurbilean euskaldunak ez dutenei eta, beraz, euskaraz jarduteko aukerarik ez dutenei gunea eskaintzen baitie, giro lasai eta informalean euskara praktikatu dezaten. Horrez gainera, euskara-maila baxuagoko ikasleei

(A1 eta A2), mintzapraktika egiteko oraindik maila nahikoa ez dutenei, Ongietorri harrera eta elkarbizitzarako programaren berri eman die euskaltegian ...eta kitto!-k. Izena urte osoan eman daiteke eta doan da. Informazio gehiagorako, deitu 943200918 telefonora edo mezua bidali elkarte@etakitto.eus / ongiatorri@etakitto.eus helbideetara.



## Barixakuak Jolasian Txaltxa Zelain izango da gaur

Aurreko astean Urkizuko parkean izan ondoren, berriro itzuliko dira Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak Txaltxa Zelain ingurura. Gaur arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara bitartean 2 eta 8 urteko umeentzat jolasak egingo dira. Hurrengo saioak azaroaren 17an (Torrekuako parkean) eta azaroaren 24an (Urkizun) egingo dira.



## Deporreko pilotariak garaipen bidetik jarraitzeko asmoz izango dira Astelenan

Pilota federatuen mailako Gipuzkoako eskuz binakako txapelketaren barruan, 8. eta azkenaurreko jardunaldian, bi partidu hartuko ditu gaur Astelena frontoiak, 19:00etatik aurrera. Eibar 1 taldeko kadeteek Pagazpeko bikotea izango dute aurrez aurre eta, senior mailan, Narvaiza-Agirresarobe bikotea ahaleginduko da Oiartzungoa markurrazten. Gipuzkoako Errendimenduko eskuz banakako txapelketako 4. jardunaldiko partiduak ere hartuko ditu jaialdi horrek: gure herriko Amillategi eta Gil izango dira protagonista Lazkaoko Lapke klubeko Arizmendi eta Harreguy aurkari dituztela, hurrenez hurren. Aurreko asteburua ezin positiboagoa izan zen, Eibarko Klub Deporti-

boko ordezkari guztiak garaile izan zirelako: Varona eta Azpilikueta kadeteek 17-22 irabazi zuten Aretxabaldan, eta Segurola eta Del Rey Segurola eta Del Rey Segurola Madalensoron 10-22 nagusituz. Seniorrek ere garaile irten zuten Beasaindik, 9-22 erraz irabazi eta gero. Errendimendu infantilen mailan, azkenik, Liher Gilek ere 2-0 garaitu zuen aretxabaldarren oztopoa.

Azkenik, arrakastatsua izan zen baita zapatuan egin zen Debarroko klubaren arteko Eskolarteko lehen jardunaldia ere. Eibarko Pilota Eskolako benjaminen hiru taldek eta alebiren beste bik hartu zuten parte bertan eta, oso emaitza onak lortzeaz aparte, beste pilota-eskole-tako euren adinekoekin topaketaz



Segurola eta Del Rey pozik, Oiartzunen 10-22 garaile irten ondoren.

gozatu zuten. Hurrengo ekitaldia hilaren 18an izango da, Astelena xedeetako bat izateko.

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

# AUPA EIBAR



## Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**

## Gibixoko kobazuloetara egindako irteerak Txindokiko Herri Txikikoari egingo dio paso

Azaroaren 18an helduko diote berriro Herri Txikiko zeharkaldiari, oraingo honetan seigarren etapa osatzeko: Amezketatik Zaldibiara egingo dute txangoa, bidean 1.342 metroko Larrunarri-Txindokitik pasatuz. Paregabeko aukera eskaintzen dute oraingoan, Euskal Herriko gailur enblematikoentako bat igotzekoa, “Cervino mendia-riaren antzeko itxura piramidala daukan berbera”. Bidean izango da ikusteko gehiagorik, tartean 901 metroko Ausa Gazteluko tontorra, “garai batean han egondako gazteluaren aztarnai oraindik eusten dietena”. Ibilbideak 17 kilometroko luzera izango du, igotzeko eta jaisteko oso desnibel parekatuekin

(1.333 metro igo eta 1.365 jaitsi). Goizeko 08:00etan irtengo dira Ego Gaietik eta buelta arratsaldeko 17:00etarako aurreikusten dute. Betiko lez, interesatuek informazio gehiago lortu dezakete martitzen eta eguenetan Deporretik pasatuta (19:30-20:30); baita 943201904 zenbakira deituta ere.

Aurreko domekan, bestalde, 20 laguneko taldeak ibilbide interesgarria egin zuen Gibixo mendilerroko kobazuloetara, Iñigo Arizagak gidatuta: “Aurrehistoriako aztarnak ikusi genituen Los Santos eta Sosterga Kobetan, otsozulo eta kobazuloetako bisita gidatuen antzera”. Eguraldia ere iragarritakoa baino hobea irten zitzaien.



Aurrehistoriako aztarnak ikusi zituzten aurreko domekako irteeran.

## Bittor Ugarteburu garaile Euskal Herriko Txapelketako Aramaioko tiraldian

Gure herriko ordezkariek lan bikaina egin zuen bolatoki horretan jokaturako Euskal Herriko Txapelketaren barruko tiraldian eta, zortzi txirlo etzanda, lehenengo postuaz jabetu zen. Tiralditik kanpo, sailkapen orokorreari begira ere Asola Berriko ordezkariek goiko postuen borroketan daude guztiz sartuta. Horrela, sailkapen orokorrean Angel Ibarluzea elgoibartarra dago gorenean, Joseba Espilla markinarra eta Asola Berriko Sergio Rodriguezen aurretik. Emakumezkoetan, oso lehia estua dago Olaitz Rodriguez eibartarra eta Aitziber Olaizola elgoibartarraren arten, une honetan 12 txirlora berdinduta daudela. Taldeka, Asola Berri A-k aurrerapauso handia eman du eta bigarren kokatu da, Elgoibarko San



Miguel taldearengandik hiru txirlora. Eta bikoteka, aspalditik ohituta gaituzten bezala, Bittor biak (Ugarteburu eta Astigarraga) hor daude irabazteko borrokan, une honetan bigarren postuan.

Hurrengo jardunaldia bihar, zapatua, jokatu da, arratsaldeko 17:00etan hasita, Markina-Xemeingo Lauzirika bolatokian.

## Malape Tabernak aurrea hartu du futbol-zaletuan

Denboraldi honetako futbol-zale- tuko liga txapelketan parte hartzen duten bederatzi taldeek osatutako sailkapena badoa itxura hartzen eta euren arteko aldeak ere gero eta nabariagoak dira. Malape Tabernak aurrea hartu duen honetan, Xania Taberna bi puntura dago, Garajes Garcia hirura eta BOJ laura. Atzerago geratu dira GastroGilda eta Baserri zazpira, eta Bar Marem eta Adahi Eraieder zortzira. Garaipen bakarrarekin dago Limpieza Rueda. Azken jardunaldian liderrak bana berdindu zuen BOJ-ekin, Marem eta Adahik bina berdindu zuten, eta Xaniak eta Baserrik erraz irabazi zieten L. Rueda eta GastroGildari (3-0 eta 5-2, hurrenez hurren).





## Eibar Rugby Taldeak berriro ere lau onenen artean geratzeko asmoz hasiko du Liga

Emakumezkoen Ohorezko A Mailako finkatu den Eibar Rugby taldearen lehen taldeak, Fer Liga amaituta, Ligari ekingo dio asteburu honetan, domekan eguerdiko 12:30ean hasita Unben jokatu den norgehiagokarekin. Bisitaria ez da makala izango, Sevillako Corteva Cocos gaur egungo txapelduna etorriko baita Eibarrera; argi dago, beraz, Cristina Guntinek prestatutako ondoko ondoko hobeto asmatu beharko dutela partiduak euren alde egite-

ko. Eibartarrekin batera, honako zazpi taldek jokatu dute estatuko maila gorenean: aipatutako Sevillako Universitario, Majadahonda, FC Barcelona, El Salvador, Crat A Coruña, Pozueloko Olimpico eta Sant Cugat. Liga amaieran lau lehenek tituluaren bila borrokatuko dute eta beste laurak mailari eusteko borrokan lehiatuko dute. Urtea amaitu aurretik, abenduarren 10ean eibartarrek Unben Sant Cugat hartuko dute.

## Kalamuako Martin Nuñezek gerriko beltza eskuratu zuen

Aurreko zapatuan Donostiako arte martzialen zentroan egindako ekitaldian, Martin Nuñez Kalamua klubeko ordezkariak judoko gerriko beltza lortu zuen Euskal Judo Federazioko maisuek osatutako epaimahaiak eskatzen dituen probak gainditu ondoren.

Bestalde, domekan Zarauzko Aritzatalde kiroldegian jokatu-tako Gipuzkoako taldekako txapelketan, Kalamuak alebin mailako hiru ordezkari izan zituen. Maddi



Nuñez Hegoi Esteban bere maisuarekin

Ajuriagerra, Maialen Lizarralde eta Uxue Gutierrez domina barik bueltatu baziren ere, "benetako gudariak bezala borrokatu zuten".

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

Atletico Madril - EIBAR (bihar, 12:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Albacete (etzi, 21:00)

#### Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Burgos - EIBAR B (etzi, 16:45)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Anaitasuna (bihar, 15:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Zarautz (bihar, 15:30)

#### Erregionaleko Ohorezko Maila

Hernani - EIBAR URKO (bihar, 16:00)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

Mondragon - URKI (bihar, 16:30)

#### Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Aloña Mendi B (bihar, 18:00)

#### Jubeniletako Ohorezko Maila

Cultural Durango - EIBAR (bihar, 19:30)

#### Jubeniletako Liga Nazionala

EIBAR B - Santutxu B (etzi, 12:30)

#### Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Indautxu (etzi, 17:45)

### FOBALL-ZALETUA

• GastroGilda - Bar Maren (bihar, 09:00)

• BOJ - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

• L. Rueda - Adahi Eraieder (etzi, 09:00)

• Baserri - Xania Taberna (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Beti Onak (bihar, 18:30)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Barakaldo - MEK EIBAR (etzi, 12:30)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

Leizaran - MEK EIBAR B (bihar, 18:30)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Mugarri Arrasa - MEK EIBAR B (bihar, 18:30)

#### Jubeniletako Euskal Liga

Bidasoa Irun - MEK EIBAR (bihar, 17:15)

#### Kadeteetako Euskal Liga

Zaisa Bidasoaa - MECALBE (bihar, 15:30)

### ERRUGBIA

#### Emakumezkoen Ohorezko Liga

EIBAR - Universitario Sevilla (etzi, 12:30)

### SASKIBALOIA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR B - AZ Casa de la Rioja (etzi, 11:30)

### WATERPOLOA

#### Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

Vallirana - URBAT (bihar, 16:00)

#### Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - WP Donostia (etzi, 14:30)

### HIRU TXIRLO

#### Euskal Herriko Txapelketa

Marquina-Xemeingo Lauzirikan (bihar, 17:00)

# “Erakusketako kasu guztiak bizipenak dira, inork ezin dit esan hori indarkeria ez denik”

JOSUNE ARANGUREN ZATIKA • Artista



Berak dio ez dela artista, margo ikaslea baizik, baina izendapenak albo batera lagata, artearen bitartez gizartean askotan ikusezina den edo ikusarazten lagatzen ez duten kontu bat azaleratu du: emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa. Ikusten ez den indarkeria da hau, emakumeei kalte fisikorik egiten ez diena, baina gizonek baino diskriminazio handiagoa jasaten jarraitzea eragiten duena.

BIDEOA



**A**zaroaren 3an inauguratu zuten, Andre-txean, Aranguneren ‘EME. Estilo-ariketak. Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak’ izeneko erakusketa. Otsailaren 29ra arte egongo da zabalik eta denbora horretan hainbat bisita gidatu eskainiko ditu Aranguren-ek. Horrela, azaroaren 21ean (17:30), abenduaren 2an (11:30), urtarrilaren 22an (17:30) eta otsailaren 21ean (17:30) bisitak egingo dira, eta parte hartzeko 943 54 39 38 edo 688 85 34 40 telefonoetara deitu edo andretxea@eibar.eus helbidera idatzi behar da.

## Arlo artistikoari begira, nolako lanak ikusi ditzakegu erakusketan?

Margolan guztietan emakumeen irudiak agertzen dira. Margo ikaslea naiz, oraindik ez naiz artista (barrreak), eta sasoi bakoitzean gauza bat margotu izan dut: akuarela, monumentuak, andrazkoak... Horrela iritsi zitzaidan Zaldudon Azaroaren 25aren inguruko erakusketa egiteko aukera, andrazkoen margolanak egiten nituela jakin zutelako. Harro sentitu nintzen, nire lehen erakusketa izango zelako, “baina andrazkoa izateagatik eta margoetan azaltzen direnak andrazkoak direlako bakarrik egin behar dut

erakusketa?”, pentsatu nuen. Gehiago landu behar nuela erabaki nuen, eta testuekin abilagoa naizenez, irudi bakoitzarekin indarkeria sinboliko bat erakusten saiatu nintzen. Horrelako zerbait egiteko gogoia nuen, 58 urtetan horrelako egoera batzuk gertatu zaizkidalako. Beraz, irudiez gain, lanketa bat egin behar zela pentsatu nuen, zerbait hezitzailea.

## Orduan, testuak irudien ondoren etorri ziren?

Bai. Irudiek bost urte inguru dituzte eta testuak iaz idatzi nituen. Indarkeria sinbolikoak zerrendatu nituen eta “hau nire bizitzan zelan islatu da?”, galdetu nion neure buruari. Bertan agertzen diren kasu guztiak nire bizipenak dira, inork ezin dit esan edo eztaba- datu hori indarkeria ez denik, niri gertatu zaizkit-eta.

## Gertakizun pertsonalak izanik, irudietan artearen irudi ezagunak ikusi ditzakegu. Zergatik adierazi zara horrela?

Erakusketaren izenburua ‘EME. Estilo-ariketak. Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoa’ da. Euskaraz eta gazteleraz balio dezakeen izenburua bilatu nahi nuen. ‘EME’-ri dagokionez, emea badakigu euskaraz zer den, eta gazteleraz ‘m’ izaten da izapideetan emakumeek markatzen dugun laukitxoa. ‘M’ jaiotzeak gure bizitza baldintzatzen du, emakume jaiotzeagatik



15 margolan eta 13 testu landu ditu Arangurenek erakusketarako. EKHI BELAR

bakarrik hemen azaltzen dudana gertatuko zaigula. Bestetik, estilo-ariketak dira, margo ikaslea naizenez, adibidez, artean ezagunak diren irudiak (Milok Venus, Nefertiti, Santa Teresa...) teknika ezberdinekin nola geratzen diren probatu nahi izan dudalako, besteak beste.

### **Gainera, ikusleek erakusketan parte hartzea eskatzen duzu. Nola?**

Erakusketa bizi izatea nahi dut. Herriari eskerrak emateko eta jendea motibatzeke modua dela uste dut. Zalduondoko erakusketan ikusi nuen androk berba egiteko gogo asko dugula, edozein irudirekin edo azalpenekin guri gertatutakoa kontatzeko eta besteekin partekatzeke gogoia dugula. Horrelako borrokek merezi dute. Badaude gauza batzuk niri gertatu ez zaizkidanak eta beste batzuei bai (beste baldintza batzuetan bizi direlako, beste jatorri bat dutelako, euskaraz ez dakitelako, pobreagoak direlako...). Orduan, andra horiek sufritzen dituzten bazterkeria espezifikoak jasotzea nahi dut. Zalduondoko ekarpenak bideoan ikusi ditzakegu eta Eibarko andren ekarpenak gehitzen joango gara. Testuez gain, irudi batzuk egiteke ere eskaintzen diet, eta horrela erakusketa handitzen joango da.

### **Nolako izan da publikoaren erantzuna?**

Zalduondoko erakusketan ekarpen asko egin zituzten, batez ere testu aldetik. Oso testu aberatsak dira. Deskribatu dituzten egoerekin eta bazterkeriekin oso adibide politak ipini dituzte. Horrelako gauzak gertatzen zaizkigu eta horrelakoek eraikitzen gaituzte. Horregatik jolasten dut horrekin, ea emakumeak irudi hutsak garen bakarrik, ez dugula askatasunik garen modukoak erakusteko... Beraz, margoketa teknikekin jolasten dut hori adierazteke. Beharrezkoa da horrelako espazioak sortzea. Borroka horiek (berba egitea, partekatzea...), guk egin ditzakegun borrokak dira eta, horrela, aurrerapausoak egiten ditugu borroka feministan.

### **Azkenean, egunero gertatzen diren egoerak deskribatzen dituzu.**

Hori da, egunero jasaten ditugun indarkeriak dira. Batzuk esango dute ez dutela horretan sinesten eta nekagarria da. Beraz, horrelako erakusketa batean aske sentitzea eta esatea bertan azaltzen dena ezin dela eztabaidatu, hau da, guri gertatu zaigun zerbait dela, horrek guztiak ondo sentiarazten gaitu. Min egiten dizkiguten egoerak dira, beraz, errespetatu dezatela.



## Hilaren 19ra arte egongo da Liburu Azoka Untzagan

Gaur goizean zabaldu dute Eibarko Disko eta Liburu Azoka, Untzagan. Urteroko martxan, Euskadiko Liburu Ganbarak Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako azokan %10eko deskontuarekin eros daitezke literaturako azken nobedadeak eta, horrekin batera, aukerako liburuak eta deskatalogatutakoak erosteko aukera ere badago. Gaurtik hasi eta azaroaren 19ra arte, goiz eta arratsalde zabalduko dute, egunero: astegunetan, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.



## Zeramika-lanen erakusketa eta Raku erakustaldia

Jesus Belaustegi eibartarrak bere zeramika-lanen erakusketa zabalduko du gaur, 19:00etan, Topalekun. Azaroaren 26ra bitartean egongo da ikustera joateko moduan, egunero 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan eguerdian ere zabalduko dute, 12:00etatik 14:00etara. Horrekin batera, Belaustegik Raku teknikaren erakustaldia eskainiko du, labean duen baserrian. Abenduaren 2an izango da hori, 11:00etatik 13:30era, eta izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 638 28 912 telefonora deitu daiteke.



## Zabaldu dute bakailao lehiaketarako izen-ematea

Udalak San Andres jaietarako XXIX. Bakailao lehiaketa antolatu du. Azaroaren 26an egingo da, Untzagan, 11:00etan hasita. Eibarren dauden elkarteek, beste herrialde batzuetako etxeek edota lagun-taldeek har dezakete parte, bikoteka, eta kide bat Eibarren erroldatuta egon beharko du. Izen-ematea azaroaren 13an itxiko dute, eta online egin beharko da, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta. Gehien jota 50 bikote onartuko dira (bestela, zozketa egingo dute, azaroaren 18an, 11:00etan, udaletxeko pleno aretoan).



## Irigoieneren Saharako argazki erakusketa Castro Urdialesen

Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideak Castro Urdialesen (Kantabria) erakusketa zabalduko du gaur, 18:00etan. Saharako errefuxiatu-esparruetan eibartarrak egindako argazkiak azaroaren 28ra arte egongo dira ikusgai, Castro Urdialeseko gazteluko Faro aretoan. Erakusketa Cantabria por el Sahara GKE-k antolatu du, Castro Urdialeseko udalarekin elkarlanean. Astelehenetik domekara zabalduko dute, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 18:30era.



## Monica Matabuena Portalea Musika Klubean

Monica Matabuena izango da hilabete honetako protagonista Portalea Musika Klubeako emanaldian. Abeslariak domekan eskainiko du bolero-jazz estiloko kontzertua, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Eskainiko dituen kantuetan Marco Martinez gitarra, Ander Garcia doublebass eta Miguel Benito bateria izango ditu lagun. Urteetako heltze prozesu baten ondoren, Madrilen bizi den Getxoko kantariak bere lehen diskoa, “Matabuenapura” izenekoa plazaratu du eta hori aurkeztera dator. Sarrerek 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



## Xabier Badiolak bakarkako lehen diskoa kaleratu du

Bere ibilbidea rockaren inguruan zenbait taldetan egin ondoren, Xabier Badiola eibartarrak folk doinu bezalako diskoa kaleratu du gaur. Sare sozialen bitartez zabaldu duenez, diskoak hamar abesti ditu, euskaraz, eta horietako hiru instrumentalak dira. Gitarra akustikoa lagun, diskoa etxean grabatu, nahastu eta masterizatu du, “konpainia onean”. Lanak bere izena darama eta gaurtik dago entzungai YouTube eta Bandcamp plataformetan, eta beste plataformetan ere eskuragarri ipiniko du asteburu honetan.



## Bihar banatuko dituzte Film Laburren jaialdiko sariak

Astelehenaz geroztik, egunero proiektatu dituzte 24. Asier Errasti Film Laburren Jaialdira aurkeztutako laburmetraiak Coliseo antzokian, eta gaur ere hala egingo dute, 20:00etatik aurrera. Bihar, berriz, 19:30ean hasiko den ekitaldian banatuko dituzte aurtengo edizioko sariak: Fikziozko Lehen Saria, Fikziozko Bigarren Saria, Euskarazko Lan Onenari Saria, Animaziozko Lan Onenari Saria eta Eibarko Laburmetraia Onenari Saria. Sarrera doan da.

## “Eibar, Euskaraz heziko duen hiria” jardunaldia Markeskuan

Udako Euskal Unibertsitateak, Eibarko Udalarekin elkarlanean, “Eibar, Euskaraz heziko duen hiria” izenburuko jardunaldia antolatu du azaroaren 21erako. Markeskua jauregian egingo da, 09:30etik 13:30era eta, antolatzaileek esan dutenez, “hezikuntza sistema formal, informal eta ez-formalaren parte direnei, elkarteko kideei, eragile desberdinei, Eibarko Hiri Hezitzaile proiektuaren parte izan nahi duen edonori” zuzendutako ekitaldia izango da.

## Robotika tailerrak LH-koentzat

Udalak LH-ko ikasleentzat robotika tailerrak antolatu ditu: LH 3. eta 4. mailakoek *Lanpara Mario Bros* izeneko a egin ahalko dute, eta 5. eta 6. mailakoek, berriz, *Argiztatu zure izena* tailerra. Jazinto Olabeko ludotekan egingo dira, azaroaren 25ean eta abenduaren 2, 9 eta 16an. Izen-ematea Udalaren webgunearen bidez egin beharko da (azaroaren 19ra arte)



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

5	8				
2	1		8	9	4
6		5			
	6		9		
4	5		1	3	6
		6			5
			1		9
	3	4	7		5
				6	7

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z				
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z				
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z				

soluzioa

**S U D O K U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

6		3	2		8	5
		9				
2	4		5	1		
	7					
9	8	4	2	7		5
					8	
		6	9		3	1
			5			
6	2		7	4		8


soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z				
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z				
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z				



**AURKITU  
10  
EZBERDINTASUNAK**

**L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A**



# Azaroak 9 - 15

## BARIXAKUA 10

### LIBURU AZOKA

11:30-13:30/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

### BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00 Barixakuak Jolasian. Txaltxa Zelai.

### HITZALDIA

17:15 "Nutrizioa eta elikadura kirolean". Portalea.

### ZINE-FORUMA

18:30 "Las inocentes" (Anne Fontaine). Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).

### INAUGURAZIOA

19:00 Jesus Belaustegiren zeramika-lanen erakusketa zabaltzea. Topaleku.

### LABURREN JAIALDIA

20:00 Asier Errasti XXIV. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiektzioa. Doan. Coliseo.

## ZAPATUA 11

### LIBURU AZOKA

12:00-14:00/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

### OILARREN BATAILA

18:00/20:00 Oilarren bataila - Haky del Rey. Doan. Errebal Plaza.

### LABURREN JAIALDIA

19:30 Asier Errasti XXIV. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Javier Aguirresarobe Sariak banatzeko ekitaldia. Doan. Coliseo.

## DOMEKA 12

### LIBURU AZOKA

12:00-14:00/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien salmenta. Untzaga.

### PORTALEA MUSIKA KLUB

19:00 Monica Matabuena, "Matabuenapura" debut-diskoa aurkezten. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalea.

## ASTELEHENA 13

### LIBURU AZOKA

11:30-13:30/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien salmenta. Untzaga.

### DOKUMENTALA

18:30 "Karpeta urdinak" emanaldia. Ondoren, Ander Iriarte zuzendariarekin tertulia. Doan. Portalea.

### PROIEKZIO-SOLASALDIA

18:30 "Patriarcado, el organismo nocivo". Pandora Box TV. Andretxea.

### GAZTAÑERRE

19:00 AEK euskaltegikoekin ospatzeko, Errebalen elkartzeko. Trikitilariak lagunduta, kalejira, Urkizun.

20:00 Afari-merienda.

Zai Zoi taberna.

## MARTITZENA 14

### BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 "Oporrak, atsedena edo estres handiagoa" tertulia. Sarrera librea. Portalea (ikastaro gela).

### LIBURU AZOKA

11:30-13:30/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien salmenta. Untzaga.

## AUZO-BILERA

19:00 Erdialde-behealdeko bizilagunekin. Coliseo.

## HARIXA EMOTEN

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten irakurle taldearen saioa: Lander Garro, "Faith" liburuari buruz. Portalea (1. batzartokia).

## EGUAZTENA 15

### LIBURU AZOKA

11:30-13:30/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

### ENERGIA ARGITU

18:30 Etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko aukeren inguruan informatzeko tailerra. Portalea (ikastaro gela).

## AUZO-BILERA

19:00 Legarreko bizilagunekin. Udaletxea (pleno aretoa).

## EGUENA 16

### HITZALDIA

10:00/12:00 "Ikusten ez den ura", Inma Mugerza hidrologian aditua den geologoaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

### LIBURU AZOKA

11:30-13:30/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

### BILERA IREKIA

18:30 Hilaren 30ean egingo den Greba Feminista prestatzeko. Andretxea.

## DOKUMENTALA

18:30 "Apaiz kartzela" emanaldia. Ondoren, Ritxi Lizartza zuzendariarekin tertulia. Doan. Portalea.

## AUZO-BILERA

19:00 Amañako bizilagunekin. Amañako eliza.

## ERAKUSKETAK

### Azaroaren 19ra arte:

- "EYBAR", Javier Rodriguez Perez-Curielen instalazioa. (Portalea).  
- INDALECIO OJANGUREN XXXVI. argazki-lehiaketa. (Portalea).

### Azaroaren 26ra arte:

- JESUS BELAUSTEGIren zeramika-lanak. (Topaleku).

### Otsailaren 18ra arte:

- "TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena. (Armagintzaren Museoa).

### Otsailaren 29ra arte:

- "EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKIA eibartarraren erakusketa. (Andretxea).

## Eskualdeko Agenda

### SORALUZE

11n (ZAPATUA)

### AZOKA

10:00 / Gaztañerre Azoka

### ERMUA

11n (ZAPATUA)

### AZOKA

11:00 / San Martin Azoka

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **11n:** 19:45, 22:30
- **12an:** 20:00
- **13an:** 19:30

**“El maestro que prometió”**  
 DRAMA



2023/Espainia/110'  
 Zuzendaria: Patricia Font  
 Aktoreak: Enric Auquer,  
 Laia Costa, Luisa Gavasa  
**Hezkuntza/Gertatutakoa**

## 2 ARETOA

- **11n:** 17:00 (1 Aretoa)
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 19:30

**“O corno”**  
 DRAMA



2023/Espainia/103'  
 Zuzendaria: Jaione Camborda  
 Aktoreak: Janet Novás, Siobhan  
 Fernandez, Carla Rivas  
**70. urteak/Nekazal giroa**

## 1 ARETOA

- **11n:** 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **13an:** 19:30 (Antzokia)

**“Un amor”**  
 DRAMA




2023/Espainia/129'  
 Zuzendaria: Isabel Coixet  
 Aktoreak: Laia Costa, Hovik  
 Keuchkerian, Hugo Silva  
**Erromantzea/Nekazal giroa**

## ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (2 Aretoa)
- **12an:** 17:00

**“Trolls 3. Todos juntos”**  
 ANIMAZIOA



2023/AEB/91'  
 Zuzendaria: Tim Heitz  
**Komedia/Familian ikustekoa**



<p>***  <b>FUNEUSKADI</b>                  Single business</p>	<p>***  <b>FUNERARIA MUGICA</b>                  Funeraria</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO/ERREHITARIO                  ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951                  www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar:                  Ozaola, 27</p>	<p>Elgoibar:                  Xaillon, s/n. SIGMA Industriaidea                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Eibarko bulegoa:                  Bidebarrieta, 20</p>	<p>Ermuako bulegoa:                  Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao                  Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

**Jon Etxaberi**  
 OMENALDI  
 EKITALDIA

azaroaren  
 18an  
 ZAPATUA  
 ARMERIA  
 ESKOLAN



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



**LOREA** etxeko erregiñak gaur 6 urte betetzen ditu. Milla zorion zure egunian, zoragarria zara-eta. Musu potolo bat danon partez.



Zorionak, **MARTIN!** 7 urte bete dozuz, mutil haundi! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure anai Mikelen partez.



Zorionak, **MARKEL!** Hillaren Sian 4 urte bete zenduaz-eta!! Jarraitu holako alai!! Patxo haundi bat famelixa-aren eta, batez be, Lukenen partez.



Zorionak, **GARI!** Astelehenian 9 urte potolo bete zenduaz-eta. Musu haundi bat asko maite zaittugunon partez!



Zorionak, **MAIALEN.** Astelehenian 3 urte egingo dozuz-eta. Musu asko famelixa-aren eta, batez be, zure anai Manexen partez!



Zorionak, **ETZAHUN!** 6 urte bete dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Xabaten partez.



Zorionak, **EKHI!** Domekan 13 urte egingo dozuz-eta. Primeran pasa eguna. Patxo bat, bereziki Maddiren partez!



Zorionak, **BEÑAT,** txapeldun! Ondo ondo pasau eta besarkada potolo bat famelixa-aren partez. Etxekuen partez.



Zorionak, **MIREN!!!** Eguaztenian 11 urte egin zenduaz-eta. Segi holan!! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!!



**MARKEL**ek 7 eta **JUNEK** 2 urte bete ditue. Zorionak eta besarkada haundi bat gure txikixeri, famelixa guztiaren partez.

## Josetxo Arana Areitio

**7. URTEURRENA**  
2016/11/08

**“Ahazten ez dena inoiz ez da hilko”**

**ASKO MAITE ZAITUGU**  
- ETXEKOAK -

## Antonia Aranzeta Izagirre

2023/10/31

**Beti “ideal”**  
Zure bizipoza,  
etxeko guztion eredu!

**Betirako gurekin,  
bihotza!**

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Eibarko Untzaga Plazan etxebizitza salgai. 79 m2, guztiz berriztua, argitsua, balkoia, 3 logela eta igogailuarekin (ez da 0 kota). 634430647.

### 1.2. Errentan

- Buhardila-loft txikia alokagai Eibarko erdialdean azarotik aurrera. Igogailua eta aire egokitua. 686829613.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, zain-tzaile bezala, etab. 602381455.
- Erizain teknikari laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu edo paseatzera atera eta garbiketarako (etxeak, pegorak, bulegoak...). Orduka. 612460920.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. 631159373.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 646821678.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. 632980833. Ana Mirena.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. 631307303. Angie Paola.

- Neska eskaintzen da zain-tzaile bezala arratsaldez. 649025614.

- Gizonezkoa eskaintzen da etxeetan lan egiteko. 679912841. Juan Loor.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 614339369.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 614197781.

- Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da goizetan ume bat edo bi zaintzeko zein eskolara eramateko. 616817058.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Habilitazioarekin. 602490595.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Egoera onean. Eskaren kontrako koltxoia, barroreak eta mahai tolesgarriarekin. 650989660. Arrate.

# 10 Kia Egunak bueltan.

Azaroaren 9tik 20ra.



Movement that inspires

Ezagutu teknologiak noraino eraman zaitzakeen azaroaren 9tik 20ra  
10 Kia Egunak bueltan direla aprobetxatuz.



Apalategi, 1 EIBAR  
943 70 70 33

WEB BERRIA [gruponaiacar.com](https://gruponaiacar.com)

ICE: WLTP CO2 isuri konbinatuak (g/km): 119-146. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 5,2-7,4. EV: WLTP CO2 isuri konbinatuak (g/km): 0. WLTP kontsumo konbinatua (kWh/100km): 16,5-20,6. Kontsultatu promozioaren baldintzak eta betekizunak [www.kia.com](http://www.kia.com) webgunean. Eskaintza honek Penintsulako, Balearettako, Ceutako, Melillako eta Andorrako Kia kontzesionarioen sarean balio du. \* Kontsultatu Kia berme-eskuburua.



# AGUR!

Laister edukiontzi erosoago  
eta eskuragarriago bat  
izango duzu nire ordezt!

